

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Batzordea

Agerraldia, 2026-03-06

Hiri arteko autobus zerbitzu publikoa Astigarragan

Agerraldia, 2026-03-06

Hiri arteko autobus zerbitzu publikoa Astigarragan

Sarrera gisa, agerraldia zergatik

Egun on, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Batzordeko presidenteari, Iñaki Ruiz Alonso jaunari, batzordekideoi eta agerraldi honetan zaudeten gainerakoei.

Lehenik eta behin, eskerrik asko agerraldi hau egiteko eskaera onartzeagatik eta Astigarragako garraio publikoarekin eta, bereziki autobus zerbitzu publikoarekin dituen arazoen berri emateko parada eskaintzeagatik.

Xabier Urdangarin naiz, Astigarragako alkatea eta, gaur, Udalaren eta astigartarren izenean nator.

Orain lau urte eta erdi inguru, 2021eko urrian, hemen izan nintzen, gaur bezala, agerraldi batean, gai beraren inguruan. Lau urte joan dira eta, tamalez, berriz egin behar izan dugu zuen aurrera etortzeko eskaria. Gauzak ez daude, hala ere, duela lau urte bezala. Argi-ilunak ikusten ditut, baina berri onen bat ere jaso dugu.

Bi hitzetan eta laburbilduz esateko, bai, neurri batzuk hartu ditu Foru Aldundiak astigartarrei eskaintzen zaien autobus zerbitzu publikoa hobetzeko, baina oro har astigartarrentzako hiri arteko autobus zerbitzuek ez dute izan, inola ere, herriak izan duen hazkundearen neurriko hazkunderik. Eta bidean, lau urte eta erdiz, etengabe aritu gara proposamenak egiten, bilerak eskatzen, mozioak onartu eta jakinarazten, herritarren kexa eta erreklamazioak bideratzen. Bide luzeegia egin dugu jaso ditugun onurak jasotzeko.

Ea gaurkoak duela lau urte eta erdikoak baino emaitza hobeak dakartzan, epe laburrean. Ea, egiaz, epe laburrean, egin diren iragarpenekin, benetako irtenbideak iristen diren.

Astigarragaz bi hitz

Astigarragaz bi hitz egin nahi dizkizuet lehendabizi.

Biztanle kopuruaren hazkundera oso handia izan da Astigarragan azken 20 urteotan. Biztanle kopurua bikoiztu egin da. Une honetan, 7.944 biztanle gara, 8.000 biztanleko langa aurten gaindituko dugu.

2001etik 2025era biztanleria %122 hazi da. 2015etik 2025era %40 hazi da.

Haur adierazlea, oso-oso altua, 15 urtetik beherako biztanleria, biztanleria osoaren %20, oso tasa altua da. Zahartze adierazlea, oso baxua, 65 urte edo gehiagoko biztanleria %13 da

Jaiotze tasari dagokionez, Euskal Herriko altuenetakoa dugu, altuena ez bada. Gipuzkoako jaiotze tasa mila biztanleko 7 ingurukoa izan da azken hamarkadan. Astigarragakoa horren bikoitza izaten ari da urtero, azken hamar urteotan, mila biztanleko 13, 15, 17...

Jaiotze tasa Astigarragan 2024an %11,4 izan da, Gipuzkoakoa %6.

Biztanleria gaztea dugu. 12 urtetik aurrera Astigarragako gazte guztiek kanpora joan behar dute ikastera: derrigorrezko bigarren hezkuntza, erdi eta goi zikloak, batxilergoa, unibertsitatea... Une honetan, gaur bertan, 12 eta 22 urte arteko 700 gazte astigartar inguruko herrietara joan dira eskolara, gehienak Donostiara.

Garraio publikoaren aldetik, oso eskaintza kaskarra dugu, Lurraldebusen bi linea, Hernani eta Donostiako erdigunearekin lotzen gaituztenak. Beste linea bat Errenteria eta Garberarekin lotzen gaituena, duela urtebete inguru jarri zutena.

Beste garraio publikorik ez dugu, ez aldiriko trenik, ez eta oso hurbil ditugun herrietara joateko autobus zerbitzu publikorik ere: Oiartzun, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta, Andoain... oso hurbil izan arren, ez dugu garraio zerbitzu zuzenik.

Bide luzea eskean

2021eko uztailaren 1ean emakida berria jarri zen martxan Buruntzaldean. Gaur arte Astigarragako Udalak eta astigartarrek gure iritzia sarri eta bide askotatik adierazi diogu Foru Aldundiari aldaketa horri buruz eta daukagun zerbitzuari buruz. Labur-labur esanda: dugun zerbitzua ez da nahikoa, ez da handitu inola ere biztanleriaren hazkundearen eta garraio publikoaren erbailpenaren hazkundearen neurrian, kalitate txarrekoa da (ordutegiak ez dira betetzen, zerbitzu asko gainezka...).

Bost edo sei mozio onartu ditu Astigarragako Osoko Bilkurak
Bilerak herritarrekin: Udalak 2020, 2021, 2023, 2025, 2026
2021-10-20an Udalaren agerraldia, BBNNetan
Foru Aldundiarekin bilerak, azkenekoa otsailean, duela hiruzpalau aste
Proposamen idatzi landuak (Donostiako Udalarekin landutako alternatibak),
erregistroz

Eta zein izan da Aldundiaren jarrera:

- urte hauetan Aldundiaren jarrera erreakziozkoa izan da
- arazoei eta gorabeherei egiturazko erabakiekin eta behin betiko irtenbideekin erantzun ordeztuz, aurrea hartu ordeztuz, unean uneko errefortzuren bat jarri eta kendu ibili da
- kexaren eta protestaren aurrean, erantzunik eza 2021etik 2025era, lau urtez
- proposamen zehatzei eta lankidetzarako gonbidapenei kasurik ez lau urtez

Eta hau salatu egin nahi dut zuen aurrean. Adibide bat jarriko dizuet. 2024ko otsailean idatziz eta erregistroz aurkeztu genuen Donostiako Udalarekin landutako proposamen bat, dBuseko 35. linea luzatzeari buruzkoa. Gero helduko diot berriz gai horri. Proposamen horrek ez du idatzizko erantzun landurik jaso. Ahozko erantzun lotsatiak, baieztuko eta ezeztuko garbirik gabeak jaso ditugu.

Proposamena teknikoki sakon aztertzeke lan-mahai bat proposatu genuen. Horixe zen gure proposamena, eseri eta alternatiba bat elkarrekin aztertu. Ez dugu modurik izan hori lortzeko.

Jakitun naiz eskumena Aldundiarena dela eta ez duela legez gai bat teknikoki aztertzeko gurekin eseri beharrik. Baina bi udalen eskariari muzin egitea ez zait gobernantza eredu berrien adibiderik egokiena iruditzen.

Zorionez, joan den udazkenean albiste on batzuk jaso ditugu eta beste jarrera bat ikusi dugu Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketako departamentuaren eta, bereziki, Garraio Zuzendaritzaren eskutik. Hurrengo hilabeteek erakutsiko digute zertan garen.

Baina aurreko lau urtetan ez entzunarena egite hori salatu egin nahi dut.

Eskean herritarrak

Beste gogoeta bat egin nahi dut eskean ibiltze honi buruz, herritarrengandik jaso dudana.

Autobusaren gai honen haritik 2021ean plataforma bat sortu zen Astigarragan. Buruntzaldeko beste herrietan baino mobilizazio gehiago eragin du autobusaren gaiak Astigarragan, eta ez dut uste izan denik astigartarrak oro har bereziki beste herrietako herritarrak baino gehiago mobilizatzen direlako. Beste herrietako pertsonen antzekoak gara. Baina gai honek, bai, eragin du jendea mugitzea.

Sinadura bilketa, agerraldia Batzar Nagusietan, kexak, idatziak, mozioak... Eta udatik gaur arte Aldundiarekin bilera laburren bat eta deiak...

Bilera irekiak ere egin dira Astigarragan, eta ni gutxienez hiru bileretan izan naiz, herritarrek gonbidatuta, azalpenak ematera, iritzia ematera joanda. Azken bilera irekia otsailaren 23an izan zen, duela 15 egun baino gutxiago. Bilera horietara udaleko udaltalde guztiei bidali izan digute joateko gonbidapena. EH Bilduko udal gobernua bakarrik joan ohi da. Azken bilerara ere EH Bilduko udaltaldekoak joan ginen. Besteak azaldu ere ez.

Larunbat honetarako Mugitu plataformak mobilizazio bat antolatu du Astigarragan.

Otsailaren 23ko bilera irekia, biharko mobilizazioa... Zergatik?

Zergatik mobilizazioak, nondik dator astigartarren haserre eta ezinegon hori? Otsailaren 23an izan zen bilerari buruz hitz egin nahi dizuet. 60 lagunetik gora. Ez da ohikoa astelehen batean inon hainbeste jende elkartzea. Astigarragarako bilera jendetsua da.

Bertaratuen %70 emakumeak ziren. Emakume heldu eta adineko asko. Mugikortasun mugak dituzten bat baino gehiago (mugitzeko gupil aulkia behar dutenak, bastoiz lagunduta dabiltzanak...). Beste perfil adierazgarri bat gazteak, eskolara autobusez mugitzen direnak. Eta, joera politikoari dagokionez, ez zen inola ere kolore bakarrekoa. Irakurketa hori egiten baduzue, alegia, Astigarragan EH Bildukoak autobusa dela eta mobilizatzen ari direla helburu politikoekin edo horrelako zerbait, horrelako zerbait pentsatzea tentagarria izan daitekeelako, horrelako zerbait pentsatzen baduzue hanka sartzen ariko zarete leporaino.

Agerraldi hau baliatu nahi dut otsailaren 23an entzun nituenak zuengana ekartzeko.

1. Jendea geltokian geratzen da urtean zehar askotan. Adibidez, azken asteotan: Donostiatik Astigarragarako noranzkoan otsailaren 20 eta 27an, 14:00 aldera, Astigarragatik Donostiarako noranzkoan otsailaren 23an lehen orduan, martxoaren 4an (herenegun) 17:00 eta 18:00 aldera. Horrelako arazoak sarri gertatzen dira, bai lanegun arruntetan, bai asteburuetan eta jaiegun edo jai-ospakizun esanguratsuak daudenean. Jendea geltokian geratzen da autobusera igo ezinik lanera edo eskolara doala.

2. Jendeak ikusten du herria asko hazi dela eta autobus zerbitzua ez. Ikusten du emakida berriaren aurretik zerbitzu hobea zuela. Datu bat, gero azalduko dizuedana: lehengo A1 eta A2aren espedizio edo bidaia kopuruak eta oraingo BU12 eta BU13arenak kopuruz ia berberak dira. Bitartean, lehen aipatu dizuet, 2015etik 2025era biztanleria %40 hazi da.

3. Jendeak ikusten du geltokiak murriztu egin direla emakida berriarekin. Herri barruko 4 geltoki ezeztatu ziren; guztira 8 zeuden. Geltokiak gaur Astigarragako betiko auzoetatik urrunago daude. Honek eragin handia du adineko pertsonengan. Betiko auzo horietako herritarren adina batezbeste altua da. Geltokiak kentzea zerbitzua okertzea da. Zerbitzuaren kapilaritatea okertzea da.

4. Arazo handienak gertatzen dira Astigarragako azken geltokian, Donostiarako noranzkoan. Geltoki hori da betiko Astigarragako eremuko jendearen geltokia. Barruko geltokiak kendu ondoren, hori da duten geoltokia. Etxetik eta auzotik urrunago. Azken geltokia denez, ohikoa da geltoki horretara autobusa gainezka etortzea. Eta jende asko dabilenean lekurik gabe geratzeko arrisku handiena duen geltokia horixe da. Geltoki hori da arazo hori gehien pairatzen duena. Geltoki hori erabiltzen duten pertsonen adina altua da eta bereziki emakumeak dira.

5. Ziurtasunik ez eta kalitate txarra. Herritar asko azken geltokitik aurreko geltokira joaten da, lekua ziurtatzeko. Edo bi geltoki lehenago dagoenera. 600 metro lehenago dagoen geltokira, edota 850 metro lehenago dagoenera. Haur txikien sillitekin dabiltzanak, erotu beharrean ibiltzen dira herriko lehen geltokira joanez, lekua izateko. Astigarragak du Gipuzkoako jaiotze tasa altuena (%11-15 artekoa), nabarmen, azken bi hamarkadotan (Gipuzkoako tasaren bikoitza; Gipuzkoakoa %6 da).

6. BU13 bereziki linea egokia denez Donostiako erdigunera joateko, hernaniarren linea horren erabilpena ikaragarri igo da. Martxoaren 3ko foru diputatu Azahara Dominguez andrearen hitzak dira:

Azahara Domínguez diputatuak gogorarazi duenez, Lurraldebusek 7,2 milioi erabiltzailerekin itxi zuen 2025. urtea Buruntzaldean, eta horrek esan nahi du ia % 10eko hazkundera izan zuela aurreko urtearekin alderatuta. Gainera, BU13 linea (Hernani >Astigarraga >Donostia) izan zen erabiliena, 1,1 milioi bidaiarekin (+%9,53).

Ondorioz, linea horretako autobusak oro har gainezka iristen dira Astigarragara, aipatu ditugun ondorioekin:

- ordutegiak ez betetzea ohikoa da
- lekurik gabe geratzeko arriskuak ezinegonaren eragiten du, eta geltokiz mugitzea
- lekurik gabe geratzea dakar
- kalitate txarreko bidaiak dira: zutik, beti zutik, errepideko biribilguneetan zutik egoteko zailtasunak... Huskeria iruditu arrear honek eragin nabarmena du adineko pertsonengan, orekari eusteko zailtasunak izan ditzaketen pertsonengan.
- Honek guztiak sortzen du kalitate txarreko zerbitzua.

7. Haserrea dator, baita ere, urteak joan urteak etorri behin betiko irtenbide nabarmenik ez ikustetik.

Gogoeta bat: erabiltzaileei buruz

Pertsona horiek, autobusa erabiltzen dutenak ez dira Udalaren erabiltzaileak. Foru Aldundiaren erabiltzaileak dira. Aldundia ez da inoiz Astigarragara etorri bere erabiltzaileekin hitz egitera. Zergatik ez. Udal zerbitzuetan ohikoa da udala herritarrekin elkartzea. Astigarragako zinegotziak eta alkatea sarri elkartzen gara gure herritarrekin, zerbitzu bati edo beste bati buruz hitz egiteko, herritarren beharrak ezagutzeko, iritziak partekatzeko...

Aldundia zergatik ez da astigartarrekin elkartzen? Uler dezaket ezin duela Gipuzkoako erabiltzaile guztiekin elkartu. Baina, herri batean horrelako ezinegona eta haserrea pilatzen ari denean, zergatik ez Astigarragara etorri eta herritarrekin elkartu? Aldundia erabiltzaileen asebetetzeaz arduratuta baldin badago, nola ez die arreta zehatzagoa eskaintzen erabiltzaile hauei?

Udala prest dago behar diren areto eta baliabideak jartzeko. Herritar asko hurbilduko litzateke eta uste dut enpatia ariketa ona litzatekeela erabiltzaileentzat eta Aldundiarentzat. Gonbidapena egiten diot Mugikortasun, Turismo eta Lurralde Antolaketako departamentuko foru diputatuari eta garraio zuzendariari etortzeko. Badakit plataformak ere egin diela gonbidapena Astigarragara etortzeko.

Gure diagnostikoa

Zein da gure diagnostikoa? Zerbitzuen tamaina eta dimentsionamendua estuegi egin dago eta edozein gorabeherarekin aipatutako arazoak sortzen dira: ordutegiak ez betetzea, lekurik ez, autobusa gainezka, kalitate txarra.

Orain arte jarri diren irtenbideak puntualak eta erdizkakoak izan dira. Esate baterako, aste zuria... errefortzuak kendu eta jendea geltokian. Ikasturte hasieran, gabonetan eta abar, ustez ikasle gutxiago izango delakoan, errefortzuak kentzen dira eta, berriz ere gauza bera, jendea geltokian. Udaberrian eguraldi on samarrarekin jendea Donostiara, autobusa gainezka eta azken geltokian autobusera igo ezin.

Errealak partida duela, autobusa gainezka eta azken geltokietako jendearentzat lekurik ez. Sagardotegi bolada, beste horrenbeste. Bi hitzetan esanda, errefortzu zerbitzuak jarri eta kendu ibiltzea ez da nahikoa. Baina, ez da nahikoa autobusean kabitzea. Kalitatezko zerbitzua behar dugu: ordutegiak betetzea, erosotasun minimo bat eta lekua edukitzeko ziurtasuna.

Beraz, herritarren ezinegona eta haserrea ulertzen dut. Eta bat egiten dut. Egunero lanera zoazela ezin duzu autobusean sartuko ote zaren ala ez zalantza eduki. Ezin duzu egunero aurreko geltokira joaten ibili. Mugikortasun edo eta oreka arazoak dituen adineko pertsona baldin bazara, beti Donostiara zutik joan beharra ez da batere egokia.

BU12 eta BU13a

Joan gaitezen zerbitzuaren xehetasunetara eta hitz egin dezagun BU12 eta BU13 lineei buruz.

Nolakoa da gaurko zerbitzua, maiztasuna? Emakida berriarekin zer gertatu da? Zerbitzua hobea al da?

Azahara Dominguez foru diputatuaren hitzak ekarriko ditut berriz. Duela hiru egun esandakoak dira: *Lurraldebusek 7,2 milioi erabiltzailerekin itxi zuen 2025. urtea Buruntzaldean, eta horrek esan nahi du ia % 10eko hazkundera izan zuela aurreko urtearekin alderatuta. Gainera, BU13 linea (Hernani >Astigarraga >Donostia) izan zen erabiliena, 1,1 milioi bidaiarekin (+%9,53).*

Eta horren ondoan, datu hauek erakutsi nahi dizkizuet:

BU12	Lehen	Uzt1	Dif	%	Irai13	Dif	%	2026	Dif	%
Astegunak	335	295	-40	-12%	295	-40	-12%	295	-40	-12%
Larunbatak	66	39	-27	-41%	39	-27	-41%	59	-7	-11%
Igande/Jaiegunak	62	32	-30	-48%	32	-30	-48%	31	-31	-50%
Guztira	463	366	-97	-21%	366	-97	-21%	385	-78	-17%

BU13	Lehen	Uzt1	Dif	%	Irai13	Dif	%	2026	Dif	%
Astegunak	405	375	-30	-7%	470	65	16%	475	70	17%
Larunbatak	65	61	-4	-6%	62	-3	-5%	65	0	0%
Igande/Jaiegunak	58	49	-9	-16%	50	-8	-14%	52	-6	-10%
Guztira	528	485	-43	-8%	582	54	10%	592	64	12%

BU13+BU2	Lehen	Uzt1	Dif	%	Irai13	Dif	%	2026	Dif	%
Astegunak	740	670	-70	-9%	765	25	3%	770	30	4%
Larunbatak	131	100	-31	-24%	101	-30	-23%	124	-7	-5%
Igande/Jaiegunak	120	81	-39	-33%	82	-38	-32%	83	-37	-31%
Guztira	991	851	-140	-14%	948	-43	-4%	977	-14	-1%

Oso taula sinplea da. Agertzen da BU12 eta BU13 lineetan emakida aldatu aurretik, emakida aldatu zenean (2021eko uztailaren 1ean), emakida berria jarri eta bi hilabetera (2021eko irailaren 13an) eta gaur egun (2026an) zenbat espedizio eta bidaia dituen linea bakoitzak Donostiako noranzkoan eta Hernaniko nornazkoan. Lau une horiek jarri ditut lau une horietan aldaketak gertatu zirelako. Taula neronek egina da.

Emaiza nagusiak:

1. BU12 linea, hernani-astigarraga-martutene-loiola-okendo
 - emakida berriaren aurreko eta gaur egungo bidaien artean -%17
 - %17ko murrizketa
2. BU13 linea, hernani-astigarraga-okendo
 - emakida berriaren aurreko eta gaur egungo bidaien artean +%12
 - %12ko gehikuntza
3. BU12 eta BU13 orotara
 - emakida berriaren aurreko eta gaur egungo bidaien artean -%1
 - bidaia kopuru bera

Ondorioak:

- BU12ko baliabideak BU13ra pasa dira. Ez dira baliabideak gehitu.
 - Bidaia kopuruaren hazkunde orokorra gertatu da (+%10) leku guztietan
 - Astigarragan askoz handiagoa, biztanle kopurua ikaragarri igo delako (2015etik 2025era biztanle kopurua %40 igo da)
 - Bi linea hauek erabilpen oso altua dute, 2024an:
 - BU12, 535.925 erabiltzaile
 - BU13, 1.025.634 erabiltzaile
 - BU13a Gipuzkoako linearik erabilienetakoa eta bere eremuko biztanleriaren kopurua kontuan hartuta, proportzioan 2. erabiliena, E09 P San Pedro – Donostia linearen ondoren
- Ikus Lurraldebusen 2024. urteko txostena

Autobus artikulatuen proposamena

Azken hilabeteotan autobus artikulatuak erabiltzeko aukera jarri du mahai gainean Aldundiak, horrekin errefortzuen gaia kopontzeko. Horretarako, ezinbestekoa zen Hernanin obra eta egokitzapen batzuk egitea. Esan beharra dago autobus artikulatuak jartzea irtenbidea izan daitekeela, baina baita ere autobus arrunt gehiago jartzea.

Galdera bat. Foru Aldundiak bere zerbitzuak ondo eskaintzeko eska dezake errepide berriak egitea, herrietan obrak eginaraztea eta abar, autobus artikulatuak erabiltzeko? Beste herrietan obrak eginarazi ditu (errepide edo karril bereziak eta abar) autobus zerbitzua hobetzeko? Edota Aldundiari dagokio dauden baldintzetara egokitzea dituen baliabideekin, autobus arruntekin adibidez? Orain arte autobus arruntekin kopondu ez dena orain artikulatuekin konponduko da?

Nolanahi ere den, Hernaniko Udalak hainbat obra eta konponketa egin ditu Hernaniko geltokietan eta bihurgune batzuetan. Egia esan Hernaniko Udalaren ekimena azpimarratu nahi dut, zailtasun tekniko nabarmena zuen eremu batean obrak egin behar izan dituztelako eta epe egoki batean egin dituztelako. Eta obra horiei esker Aldundiari erraztu egin diotelako autobus zerbitzua hobetu ahal izatea.

Jakin dugu eta ikusi Aldundia hasi dela autobus artikulatuekin probak egiten, baina ez dakigu ziur nola erabiliko diren. Aldundiarekin duela gutxi izan genuen bileran galdera hori egin genuen eta erantzun ziguten beharren arabera jarriko dituztela eta ikusiko dutela. Alegia, ez dituztela autobus artikulatuak modu orokorrean jarriko. Hortaz, zer gertatuko da? Autobus artikulatua orain bai, gero ez, ikasleak oporretan daudenean ez, gero bai... Jarri eta kendu ibiliko gara eta berriz ere jendea geltokian geratzeko arriskuan eta muga-mugan ibili behar dugu?

Zergatik ez handitu maiztasuna 15 minutura? Zergatik ez jarri zerbitzu batzuk Astigarragatik hasita? Astigarragako azken geltokiek beti jasan beharko dute lekurik gabe geratzeko arriskua eta zama, zutik joan beharra, kalitate txarra...? Dirudienez, autobus artikulatuaren irtenbidea badator, baina behin betiko koponduko ditu horrek arazoak?

Ospitalera eta unibertsitateetara

Komunikabideetan iragarri ondotik, informazioa eskatu genion Aldundiari jarri bide duten linea berriari buruz eta bitan elkartu gara, behin foru diputatuarekin berarekin eta beste behin garraio zuzendariarekin. Biler horietan informazioa eskaini digute, ekarpenetarako tarte handiegirik gabe, argi esan behar bada.

Linea berria jarriko digutela eta pozik egotekoa dela. Jakina, pozik egotekoa da. Baina, bazen garaia. Buruntzaldeko eta Oarsoaldeko herri bakarra izan gara urteetan eta urteetan ospitaleetarako autobus zerbitzurik gabe. Eta bai, esker onekoak gara, baina bazen garaia. Zor bat kitatzera dator zerbitzu berria, eta ez ezer berezirik ematera.

Gainera, guri berdin zaigu linea Astigarragatik irtetea. Beste herri batetik irtenda ere, ondo, ospitaleetara eta unibertsitateetara eraginkortasunez eta egoki garraiatzeko balio badu. Esate baterako, zergatik ez linea bat Andoain-Urnieta-Astigarraga-Ospitaleak-Unibertsitateak? Oinarrizko zerbituekin lotzeaz ain, eskualdeko herriei lotuko gintuzke?

Hitz egin dezakegun linearen ezaugarrien gainean:

- Orduko maiztasuna, astegunez (asteburuetan zerbitzurik ez)
- Geltokiak: bi geltoki Astigarragan, herriaren zati handi batetik urrun samar daude
- Geltokia ospitaleetan: sarrera nagusitik urrun samar (onkologikoaren parean)
- Orduetegiaren kalkulua: Astigarragatik unibertsitateetara 25 minutu; 7:30ean irten eta 8:00etako eskoletara iristeko. Orduetegi hori beteko ote den zalantza handiak ditugu, bereziki goizeko 7:30-9:00 bitartean

Autobus bat jarriko du Aldundiak linea horretarako. Ibilgailu berak ordubeteetan itzuli osoa egingo du.

Gure balorazioa: maiztasuna txikiegia da horren ibilbide laburrerako. Asteburuetan zerbitzurik ez izatea, ez zaigu egokia iruditzen. Orduetegi beteko ote den zalantza handiak ditugu.

Beste alternatiba bat, dBus-en 35 linea luzatzea

2022 eta 2023an zehar Donostaiko Udalarekin hainbat bilera egin genituen, dBuseko lineak Astigarragara luzatzeko aukerak aztertzeke.

2020an Astigarragan landu genuen Mugikortasun Planeko azterketa eta proposamenetan jasotako aukeretako bat da, autobus bidezko garraio publikoa hobetzeko eta, besteak beste, Astigarraga Donostiako mendebaldearekin konektatzeko.

Labur eta motzean esanda, proposamena da dBus-en 35. linea (Antigua, Aiete, Ospitaleak). Lineari autobus ibilgailu bat gehitu beharko litzaioke eta oraingo maiztasuna izango luke, alegia ordu erdiroko maiztasuna. Beste era batera esanda, Aldundiak iragarri duen linea berrian jarriko diren baliabide berberak erabiliz maiztsaun bikoitza lortuko litzateke. Proposamen hau ez dut nik asmatu, dBus-en zuzendaritzarekin landu genuen teknikoki.

Aldundiari hiru erakundeen arteko mahai tekniko bat sortzea proposatu genion aukera hori sakon aztertzeke, baina ez dugu horretarako aukerarik izan. Argudio eta azalpen argiegirik gabe baztertu dute aukera hori.

Lankidetza, Donostialdea

Jakitun naiz horrelako proposamen batek lanketa handia eska dezakeela, erakunde desberdinak, eskumen-esparruak, zerbitzuen emakidak eta abar. Baina, aldi berean, errealitatean gurutzatu egiten dira herritarren mugikortasun beharrak eta eraginkortasun irizpideak.

Donostialdean, bereziki, gisa horretako bideak urratzen hasi beharko genuke Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta gainerako udalen artean: autobus zerbitzua, bizikleta zerbitzu publikoak eta abar. Beste leku batzuetan ere hiri barruko garraio zerbitzuek hiri arteko mugetan jardutea bide interesgarria izan liteke, Aldundiaren eta tokian tokiko udalen arteko hitzarmenen bidez. Uste dut bide hori ez dela landu. Gurekin bide hori lantzeko aukera garbia izan dugu. Eta Aldundiak ez du nahi izan.

Alkate gisa gai konplexuak kudeatzea tokatu zait eta, Aldundiaren eta udalen arteko hitzarmen bat ez zait gauza bereziki zaila iruditzen, hiri barruko autobus zerbitzu baten linea bat beste herri batera luzatzeko eta horren finantzaketa adosteko. Aldundiak gauza zailagoak egingo ditu noski.

Autobus publikoaren zerbitzuak gehitu eta hobetu

Irabazteko grina behar izaten da. Apustua argi egitea. Astigarragaren kasuan ikusi dugu linea bat indartzeko beste murriztu dela eta ez dela egiaz egiturazko neurririk hartu autobus zerbitzuaren eskaintzan jauzi egoki bat egiteko. Grina berezirik gabeko moldaketa eta partxeak izan dira.

Eta eskaria badago. Herritarrek autobus zerbitzu publikoa erabiltzen ari dira. Inoiz baino gehiago. %10 igo da. Astigarragan hazkundera bi aldiz gertatu da: biztanle gehiago (azken 10 urteotan %40 gehiago) eta garraio publikoaren erabilpenaren hazkundera.

Pertsona batzuk garraio publikoaren gatibu dira, ibilgailurik ez dutelako edota gidatzerik ez dutelako. Persona horiek autobusa behar dute. Ez dute beste alternatibarik.

Ibilgailua behar dutenei, autobus zerbitzu publiko egokia eskaini behar diegu, etxean utzi eta autobusa har dezaten. Donostialdean autobusaren zerbitzu publikoa da mugikortasunaren alternatiba.

2020an Astigarragan landu genuen Mugikortasun Planak erakutsi zigun Astigarragan bizi eta lanera joan behar duten herritarren %70 autoaren gatibu dela, hau da ez dute alternatiba egokirik garraio publikoarekin lanera joateko.

Laburbilduz eta amaitzen hasteko, horixe eskatzen diogu Aldundiari:

- BU12 eta BU13 lineak indartzeko modu iraunkorrean, geltokian geratzeko arriskua ezohiko egoerataraz murriztuz
- Ospitale eta unibertsitateko linea abian jartzea orduerdiroko maiztasunarekin astegunez eta odubetako maiztasunarekin asteburuetan, Astigarragako lau geltokietara iritsiz
- Kalitatea ziurtatzeko: ordutegiak, lekua edukitzeko ziurtasuna eta gutxieneko erosotasuna pertsona profil batzuentzat (adinekoak, besoetako haur txikiekin dabiltzanak...)
- Garraio publikoari eskaintzen zaizkion baliabideak biderkatzeko eta politika ausartak egiteko.

Amaitzeko bi hitz

Amaitzera noa lehen hitzaldi hau, zuen galdera eta iritziak entzuteko.

Gai honek aho zapore gazi gozoa sortzen dit. Gozoa irtenbide batzuk badatozelako, linea berria eta autobus artikulatuen erabilpena eta azken hilabeteotan Aldundiaren aldetik bestelako jarrera bat sumatu dugulako.

Baina aldi berean, gazia, batetik aurreko bost urteotako dinamika benetan etsigarria eta nekagarria izan delako eta zalantzak ditugulako iragarri diren neurri horiekin ez ote garen berriz ere erdi bidean geratuko.

Eskerrik asko